

**BESTE ENTITATE BATZUEKIN SINATUTAKO HITZARMENAK**

SINADURAREN EGUNA	IZENA	XEDEA
2023-03-21	Hitzarmena Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren artean Haur Hezkuntzako lehenengo zikloarekin lotuta	Helburuak eta konpromisoak ezartzea eta organismo bat eratzea (Hezkuntza Departamentuaren, Lurralde Kohesioko Departamentuaren eta NUKFren lankidetzaren fruitu) Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloaren hezkuntza ikuspegia eta kudeaketa eredu bateratua definitzeko hausnarketa esparrua eta tresnak ahalbidetzeko.
2021-12-02	Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko lankidetzarako esparru-hitzarmena bikote egonkorren osaera eta, ondoren, Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean inskribatzea errazteko.	Hitzarmenarekin bat egiten duten toki entitateetan idazkari postua betetzen duen pertsonaren aurrean, Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean inskribatu ahal diren agiri publikoak formalizatzea ahalbidetzea bai eta, ondoren, erregistro horretan inskribatzeko eskabideak bidaltzea ahalbidetzea, modu horretan eraturako bikote egonkorreko kideek eskatzen dutenean.
2021-11-9	Hondakinen Prebentziorako eta Ekonomia Zirkularra Sustatzeko Bulegoaren jarduerak egiteko esparru-hitzarmena	Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko 14/2018 Foru Legeak Hondakinen Prebentziorako eta Ekonomia Zirkularra Sustatzeko Bulegoari esleitzen dizkion zereginen barruan egingo diren jarduerak gauzatzeko funtzionamendu protokolo bat ezartzea.
2021-05-31	Jarduketa protokolo orokorra Herritarrekiko Departamentuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko elkarlanerako Europako proiektuen eta funtsen informazioaren eta bilketaren alorrean.	NUKFren eta Nafarroako Gobernuaren Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren (Europako Proiektuen Bulegoaren bidez) arteko elkarlana formalitzea Bulegoaren jardueretan, NUKFren bidez, toki entitateekin elkarlanean aritzeko; bereziki, toki entitateentzat interesgarriak izan daitezkeen Europako politiken eta finantzazioaren alorrean informazioa helaraziz.
2021-05-24	Protokoloa NUKF Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta Kuna Nafarroako Kultur Kudeaketa elkartearen artean	NUKFren eta KUNAREN artean elkarlanerako jarduketa-esparru orokorra ezartzea zenbait lan-ildo garatzeko.
2021-03-4	Elkarlanerako protokoloa Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganberaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren artean federaziokideen artean ganberaren funtzioak zabaltzeko.	Ganberak NUKFri informazioa helaraziko dio Nafarroako Foru Komunitateko pertsonak eta enpresak garatzeko abian dituen jarduketei buruz.
2020-11-30	Lankidetz hitzarmena Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta Oxfam Intermón GKEaren artean.	“Elidakura segurtasuna eta ekoizpen kateamendua Guatemalako Corredor Seco eskualdean” deituriko garapen lankidetzarako proiektua egiteko.
2020-09-30	Lankidetz hitzarmena Barañaingo, Burlatako, Eguesibarko udalen, Iruñerriko Mankomunitatearen eta Nafarroako Udallerrien eta Kontzejuen Federazioaren artean (Garapen Lankidetzarako Toki Funtsa ordezkatzuz)	Hiru urteko iraupeneko garapen lankidetzarako proiektu bat batera finantzatzea ekarpenak eginez hiru urteko indarraldian (2020-2022).
2020-08-27	Lankidetz hitzarmena Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta Fenie Energía S.A enpresaren artean	Hitzarmenaren helburua da tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu bereziagatik eratorritako tasa likidatzea ahalbidetzen duten elementuak zehaztea, bai eta aipatu tributua kudeatzeko eta likidatzeko prozedura homogeneo bat ezartzea ere.
2020-06-3	Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko protokolo orokorra, COVID-19arekin lotutako jarraibideak biltzen dituena.	Zenbait jardueraren arriskua aztertzea norbera eta gizartea babesteko eta prebentzio-neurri egokienak hartzea, nork bere burua zaintzeko eta erantzukizunez jokatzeko jarrera izanda, Nafarroan erronka kolektibo honi arrakastaz aurre egiten jarraitzeko.
2019-09-11	Eranskina, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Udallerrien eta Kontzejuen Federazioaren arteko lankidetz hitzarmenarena, zeina kalteberatasun kasuak familiaren etxebizitzatik botatzean atzemateari	2016ko irailaren 22an sinatutako lankidetz hitzarmena luzatzea 2023ko irailaren 23ra arte, hitzarmenari puntu guztietan eutsita.

	eta etxegabetezko eta hipotekak besterentzeko prozeduretan datuak lagatzeko neurri sozialei buruzkoa baita	
2019-03-26	Lankidetzarako esparru hitzarmena, zergari buruzko informazioa trukatzeko eta elkarlanean aritzeko zergaren kudeaketan eta ikuskapenean Nafarroako Zerga Ogasunaren eta Nafarroako toki entitateen artean.	Hitzarmenaren lehenengo helburua zergei buruzko informazio-trukea ahalbidetzea da. Bigarren helburua, berriz, (soilik udalek nahi badute betetzeko dagokion atxikitze-erabakia sinatuta), erakundeen artean lankidetzara ildo bat ezartzea da. Horretarako, Nafarroako Zerga Ogasunak bere baliabideak eta tresnak jarriko ditu udalen eskura, udalek bere zerga jardueraren helburuak eta printzipioak betez erabiltzeko, zeinak, aldi berean, Ogasunaren helburuak baitira. Modu horretan, hitzarmen hau 2016-2019ko iruzur fiskalaren kontrako borrokarako planaren helburuekin bat dator.
2019-03-18	Lankidetzara hitzarmena, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren, Unibertsitatea-Gizartea Fundazioaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren artean, trebakuntza programak egiteko.	Hitzarmenean jasotzen diren baldintzak betetzen dituzten Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleek eta unibertsitateko tituludunek trebakuntza osoa jasotzea Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak lanean diharduen esparruan praktika espezializatuak eginez. Modu horretan, trebakuntza akademikoa osatuz bai diplomatura zein lizentziaturetan edo graduondoko programetan.
2018-06-07	Lankidetzara hitzarmena, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren artekoa, arreta goiztiarraren zerbitzua emateko.	Arreta goiztiarraren zerbitzua ematea Nafarroako Foru Komunitatean, esan nahi baita, esku hartzea 0-3 urte bitarteko haurrak, haien familia eta ingurunea babesteko, helburua izanik, betiere, ahalik eta lasterren erantzutea garapenean nahasmenduak dituzten edo izateko arriskua duten haurren behar iragankorrei edo iraunkorrei.
2018-02-06	Saharar herriarekiko lankidetzara hitzarmena, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta Fronte Polisarioren artekoa (Sagua El-Hamra eta Río de Oro askatzeko Herri Frontea)	Elkartasuna agertzea saharar herriarekin, zeina oso baldintza latzetan bizi baita Tindoufeko errefuxiatu zelaietan (Aljeria) eta Fronte Polisarioren agindupeko Mendebaldeko Saharako lurraldetan, eta bakearen aldeko ekimenak babestea, bidezko konponbide bat bilatzen dutenak, batik bat Nazio Batuen Erakundeak sustatuak badira.
2017-12-21	Lankidetzara hitzarmena, Nafarroako Udalerriaren eta Kontzejuen Federazioaren eta Goiener S. Coop.-ren artekoa.	Eremu publikoetako lurzoru, zorupe eta hegalkinaren tasa berezia likidatzeko bide ematen dituzten osagaiak zehaztea (udalerrri edo kontzeju bakoitzean urtero lortzen den fakturazioaren diru-sarreraren gordinen %1,5) eta tributu hori kudeatu eta likidatzeko prozedura berdina ezartzea.
2017-11-24	Emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Nafarroako Erakunde Arteko III. Akordioa.	Akordioa, Nafarroako Gobernuak, Gobernuaren Ordezkaritzak, Justiziaren Auzitegi Nagusiak, Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusiak eta Nafarroako Udalerriaren eta Kontzejuen Federazioak izenpetua, koordinaziorik eta elkarlanik handiena lortzeko emakumeen kontrako indarkeriari aurrea hartzeko eta bere osotasunean heltzeko.
2017-09-07	Eranskina, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Udalerriaren eta Kontzejuen Federazioaren arteko lankidetzara hitzarmenarena, zeina kalteberatasun kasuak familiaren etxebizitzatik botatzean atzemateari eta etxegabetezko eta hipotekak besterentzeko prozeduretan datuak lagatzeko neurri sozialei buruzkoa baita	Urtebete luzatzea 2016ko irailaren 22an sinatutako lankidetzara hitzarmenaren indarraldia, hau da, 2018ko irailaren 22ra arte, hitzarmenari puntu guztietan eutsita.
2016-09-22	Lankidetzara hitzarmena Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Udalerriaren eta Kontzejuen Federazioaren artekoa, kalteberatasun kasuak familiaren etxebizitzatik botatzean atzemateari eta etxegabetezko eta hipotekak besterentzeko prozeduretan datuak lagatzeko neurri sozialei buruzkoa	Jarduteko protokolo bat ezartzea atzematen denetan ezen, hipoteka besterentzeko prozedura baten ondorioz edo errenta ez ordaintzearen ondorioz etxegabete bat egiteagatik, kalteberatasun bereziko kasu bat edo gizarte-bazterketaren bat dagoela, zeinetan komenigarria edo beharrezkoa baita kasuan kasuko administrazioak esku hartzea, ukitutakoak sartzearren autonomia erkidegoak edo toki administrazioak kudeatzen dituen bitartekaritza programetan, etxebizitzaren, larrialdiko laguntzak jasotzearen edo gizarte etxebizitza eskuratzearen arloan.
2015-06-10	Hezkuntza arloko lankidetzarako esparru hitzarmena, Nafarroako Udalerriaren eta	Unibertsitateko ikasleek kanpoko praktikak egitea NUKFri atxikitako toki entitateen zerbitzu eta unitateetan.

	Kontzejuen Federazioaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren artean, kanpoko praktika akademikoak egiteko	
2015-06-05	Lankidetzaren hitzarmena Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuaren, Kontuen Ganberaren eta Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioaren artean.	Lankidetzaren kostuak kalkulatzeko programa bat garatu eta ezartzeko toki entitateen kontabilitate publikoan
2013-10-11	Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren, Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioaren arteko lankidetzaren hitzarmena, kalteberatasun kasuak familiaren etxebizitzatik botatzeari atzemateari eta neurri sozialei buruzkoa	Jarduteko protokolo bat ezartzea baztertzeko arriskuan eta kalteberatasun egoeran daudenek izan dezaten administrazioen erantzun sentikor eta egokia, indarreko araudiaren barnean.

2012-12-11	Instituzioen arteko akordioa Nafarroan ezkutuko ekonomiaren eta deklaratu gabeko enpleguaren kontra egiteko plan baterako (CCOO, UGT, CEN, NUKF, Gobernuaren Ordezkaritza, Nafarroako Gobernua)	Jarduketa orokorrak egiteko programa bat ezartzea ezkutuko ekonomia atzeman eta prebenitzeko, informazioa trukatzuz administrazioen artean eta sentikortasun ekintzak eginez
2010-12-17	Emakumeen kontrako indarkerian arreta eta prebentzioa benetan koordinatzeko instituzioen arteko akordioaren batzorde iraunkorra  (Nafarroako Gobernua, Gobernuaren Ordezkaritza, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Foru Komunitateko Fiskaltza Nagusia, Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioa)	Koordinaziorik handiena eta onena lortzea emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzian esku hartzen duten instituzioen artean eta horren ondoriozko biktimei laguntza ematea eta jarduteko jarraibide homogeenok ezartzea Nafarroako Foru Komunitate osoan, kalitatezko arreta bermatzeko osasunaren, poliziaren, justiziaren eta gizartearen arloetan, baita prebentzioa ere, hezkuntza eta sentikortasun ekintzen bidez.
2010-2-16	Lankidetzazko hitzarmena, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuaren eta Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioaren artekoa, prestakuntzarako administrazio arteko plan bat prestatu eta kudeatzeko	Enplegatu publikoen prestakuntzarako administrazio arteko plan bat prestatu eta kudeatzeko
2009-1-1 (urtero luzatzen da)	Lankidetzazko hitzarmena posta eta telegrafia zerbitzuak emateko, Sociedad Estatal Correos y Telégrafos SAren eta Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioaren artean	Posta eta telegrafia zerbitzuak ematea hitzarmenari atxikitako Nafarroako toki entitateen alde, zenbait deskontu aplikatzeko tarifa ofizialetan.
2005-4-22	Lankidetzazko hitzarmena Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren, Jasangarritasunaren aldeko Nafarroako Toki Entitateen Sarearen eta Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioaren artean	Nafarroako toki entitateen jarduketak sustatzea haien lurraldeetan garapen jasangarria lortzeko, eta, horretarako, babesa ematea Jasangarritasunaren aldeko Nafarroako Toki Entitateen Sareari kasuan-kasuan ezartzen den moduan, horrek bere jardura egitea eta bere helburuak betetzea errazteko.
2011-4-1	Lankidetzazko hitzarmena Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioaren eta Naturgas Energia Comercializadora SAren artean.	Eremu publikoetako lurzoru, zorupe eta hegalkinaren tasa berezia likidatzeko bide ematen dituzten osagaiak zehaztea (udalerrri edo kontzeju bakoitzean urtero lortzen den fakturazioaren diru-sarreraren gordinen %1,5) eta tributurik hori kudeatu eta likidatzeko prozedura berdina ezartzea.
2010-4-7	Lankidetzazko hitzarmena Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioaren eta Gas Natural Distribución SDG SAren, Gas Navarra SAren, Unión Fenosa Distribución SAren, Gas Natural Comercializadora SAren, Gas Natural Servicios SDG SAren, Gas Natural SUR SAren eta Unión Fenosa Comercial SAren artean	Eremu publikoetako lurzoru, zorupe eta hegalkinaren tasa berezia likidatzeko bide ematen dituzten osagaiak zehaztea (udalerrri edo kontzeju bakoitzean urtero lortzen den fakturazioaren diru-sarreraren gordinen %1,5) eta tributurik hori kudeatu eta likidatzeko prozedura berdina ezartzea.
2009-7-20	Lankidetzazko hitzarmena Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioaren eta Endesa Energía SAren artean	Eremu publikoetako lurzoru, zorupe eta hegalkinaren tasa berezia likidatzeko bide ematen dituzten osagaiak zehaztea (udalerrri edo kontzeju bakoitzean urtero lortzen den fakturazioaren diru-sarreraren gordinen %1,5) eta tributurik hori kudeatu eta likidatzeko prozedura berdina ezartzea.
2006-12-31	Lankidetzazko hitzarmena Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioaren eta Iberdrola SAren artean.	Eremu publikoetako lurzoru, zorupe eta hegalkinaren tasa berezia likidatzeko bide ematen dituzten osagaiak zehaztea (udalerrri edo kontzeju bakoitzean urtero lortzen den fakturazioaren diru-sarreraren gordinen %1,5) eta tributurik hori kudeatu eta likidatzeko prozedura berdina ezartzea.
2006-12-31	Lankidetzazko hitzarmena Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioaren eta Iberdrola Distribución Eléctrica SAren artean.	Eremu publikoetako lurzoru, zorupe eta hegalkinaren tasa berezia likidatzeko bide ematen dituzten osagaiak zehaztea (udalerrri edo kontzeju bakoitzean urtero lortzen den fakturazioaren diru-sarreraren gordinen %1,5) eta tributurik hori kudeatu eta likidatzeko prozedura berdina ezartzea.

1990-7-16	Lankidetzaren hitzarmena Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioaren eta Berrueza Saren artean	Eremu publikoetako lurzoru, zorupe eta hegalkinaren tasa berezia likidatzeko bide ematen dituzten osagaiak zehaztea (udalerrri edo kontzeju bakoitzean urtero lortzen den fakturazioaren diru-sarrera gordinen %1,5) eta tributu hori kudeatu eta likidatzeko prozedura berdina ezartzea.
1990-1-12	Lankidetzaren hitzarmena Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioaren eta ENAGASen artean	Zehaztea zein den tarifa gas naturala garraiatzeko hodiez eta elementu osagarriez eremu publikoa etengabe okupatzeko, metro linealetan zehaztuta, eta norainoko irismen materiala duen, eta sistema bat ezartzea tributu hori kudeatzeko